

UNIBERTSITATEA. 2004rako ikasgaietako bi heren euskaraz emateko plana badago ere, gaur egun bakar bat dago

Gizarte Laneko Eskolak euskaraz eskaintzarik ez duela salatu dute

Gaueko itxialdia egin dute Gasteizko egoitzaren barruan

Luis Karlos Garcia | **GASTEIZ**

Astearte gauean itxialdiari ekin zioten Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Gasteizko Gizarte Laneko Eskolako 30 ikasleak, euskarazko eskaintzarik ez dagoela salatzeke asmoz. Bil-dutakoetako bozeramaile batek hedabide honi jakinarazi zion «egoera larrian» daudela, hiru urteko diplomatura horretan

diharduten ikasle euskaldunen hizkuntza eskubideak urratu-rik: «Euskara Plangintzaren arabera, 2004. urterako ikasgai guztietako bi heren euskaraz emateko plana indarrean da, baina errealitatea da gaur egun ikasgai bakar bat dagoela euskaraz jasotzea».

Ikasle talde horren irudiko, unibertsitateko agintari-iek «se-kulako interes falta» agertu



KARLOS BIGURI

Itxialdian diren ikasleak, Gasteizko Gizarte Laneko Eskolan.

dute orain arte euskarazko eskaintza duina egiteko. «Iruzurra egiten zaigu behin eta berrero», salatu du eledun batek.

EHUK Gasteizen ematen du

soilik Gizarte Lana ikasteko aukera. Beraz, ez da beste ikaske-ta batzuetan gertatzen dena, hots, hiri batean euskarazko eskaintza murrizta izanik, beste

batean hobea dagoela. Hala, ikasleen ustez, egoera linguistiko okerrak hainbat ikasle euskaldun beste ikasketa batzuetara bideratu ohi ditu.

HERRI KONTSEILUA. Baiona Ttipian egingo dute

Baionako Udalak 45.000 metro koadro utzi dizkio BAMi Unibertsitatea eraiki dezan

Nora Arbelbide | **BAIONA**

Baionako Herriko Etxeak Baiona Ttipiko 45.000 metro koadro utzi dizkio Baiona-Angelu-Miarritze aglomerazioari 1,3 milioi liberaren truke (33 milioi pezeta inguru). Lur horiek unibertsitate berriaren eraikitzeko erabiliak izanen dira. «BAM aglomerazioak ukanen du lanen ardurara. Lurrak orain ematearekin, gunea aztertu, proiektua aitzinarazi eta gunearen inguruko lurretan lanak hasten ahalko ditu. Unibertsitatearen eraikuntza lanak beren aldetik hemendik bi urtera hasiko dira. «Lanak hasi aitzin, bi urtez ezin da baztertuta utzi lurra», adierazi zuen Jean Grenet Baionako auzapezak, joan den maiatzaren 22an iragan zen herriko kontseiluan. Gaur egun, Saint-Crouts gunean dagoen unibertsitateko sail guztiak bertara ekarriak izanen dira.

Litekeena da proiektuan, besteak beste, La Floride gunean, kirol zelai gehiago jartzea. Hala-ber, unibertsitateko ostatua San Andresen plazan ezarria izan liteke. Horrez gain, aparkaleku gehiago harresien azpian jarriko lituzkete, Grenetek zehaztu zuten. Gaur egungo Baionako fakultateko dekanok, Henri Labayle jaunak, «oraindik dena egitekoa dela» erran zuen, eta

bakarrrik jabetza aldaketa bat dela azaldu zuen.

Sei orenez, 79 gai aztertu zituzten herri kointseiluan, eta euskarak bilkuran ukan behar zuen lekua aztertua izan zen.

Transkribaketak soilik frantsesez

«Euskaraz hitz egiten ahal bada ere, bilkura soilik frantsesez transkribituko» zutela iragarri zuen auzapezak. Hain zuzen ere, Xabi Larralde eta Gisele Lougarot, ABko hautetsiek aitzineko kontseiluan euskaraz adierazi hitzak, «aktan euskaraz idaztea» galdegiteari, Grenetek, «frantsesa Errepublikako hizkuntza bakarra» dela erantzun zien. «Euskararen promozioa bakoitzak egiten ahal badu ere, euskaraz mintzatzen ahal bazarete ere, arauak dio frantsesez bakarrik idatzi behar dela».

Bestalde, Baionako Gaztetxe bat galdegiten duten Aurreku Gaztetxeak lortu 1.500 izenpedurak bideratu zituen Larralde. Grenetek ihardetsi zien nahi balu ere «ezinezkoa zela», ez «proiektuaren aurka» delako, «salarik ez duelako» baizik. «30 elkarte beharrean» daudela azpimarratu zuen. «Gune pribatuak aurkitu behar zituztela» zehaztu eta, «segurtasuna hurbile-tik begiratu zuela», adierazi zuen.

Xuxen

euskarazko zuzentzaile ortografikoa

► Word, Acces, PowerPoint, Front Page eta Outlook programetarako baliagarria.

► Euskaltzaindiaren azken erabakien arabera eguneratua.

► Instalatzeko erraza.

► Mac eta PC-rako (Pc-Office 97 eta Office 2000/ Mac-Office 98).

Maiatzaren 20tik aurrera EGUNKARIArekin

Nola jaso dezaket Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografikoa?

1- Maiatzaren 20ko Euskaldunon Egunkariarekin, lehen kupoi eta kupoiak itsasteko orria banatuko dira. 6 kupoi izango dira guztira, eta egunero jasoko dituzu Egunkariarekin, maiatzaren 27a arte.

2- Kupoez beteriko orria kioskoan aurkeztuta, Xuxen zuzentzaile ortografikoa jaso ahal izango duzu maiatzaren 27tik aurrera.

3- Kupoiaren baten faltan geldituz gero, maiatzaren 29ko eta 30eko Egunkarian ordezkoko kupoiak banatuko ditugu.

Xuxen-ek izandako harrera ona dela eta, kupoiak itsasteko plantillarik gabe gelditu bazara, datorren maiatzaren 29an ordezkoko kupoiarekin batera plantilla banatuko da berriz ere. EZ GALDU AUKERA!



HARPIDEDUNAK, adi!
Xuxen jasotzeko, kupoiak bildu eta bidali helbide honetara:
Egunkaria/harpidetza
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain.

BABESLEAK:

bbk=

kutxa
zuri esker

EGILEAK:



Euskaraz gero eta xuxenago.

Egunkaria